

euskararen berripapera

212



Eusko Jaurlaritzak **BIKAIN** Euskararen Ziurtagiriak banatu ditu Kursaaletan

Euskal Autonomia Erkidegoko 44 erakundeek jaso dute BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria Donostiako Kursaal Jauregian egindako banaketa-ekitaldian.



Bikain ziurtagiria eskuratu duten erakundeetako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak banaketa-ekitaldian.

Hirurehun pertsonatik gora elkartu ziren Donostiako Kursaal Jauregian egin zen Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren banaketa-ekitaldian. Bertan izan ziren, besteak beste, Bikain ziurtagiria eskuratu duten erakundeetako ordezkariak, Ebaluatzaile Klubeko kideak, enpresaburu zein kooperatiba elkarrean goi-ordezkariak, euskal kulturgintzako ordezkariak, eta baita administrazioetako, alderdi politikoetako nahiz sindikatu etako ordezkariak ere. Haiekin batera izan ziren Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu Blanca Urgell, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburu Bernabé Unda, eta Hizkuntza Politikarako sailburuorde Lurdes Auzmendi. Hiruren artean banatu zituzten ziurtagiriak. Horiez gain, ekitaldian parte hartu zuten Mikel Ugaldede Euskalit-eko zuzendariak eta Ainhoa Rotaetxe Confebask-eko ordezkariak ere.

Bikain ziurtagiria ofiziala, publikoa eta doakoa da, Eusko Jaurlaritzak ematen duena eta enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta

kudeaketa egiaztatzen dituen. Bikain ebaluazio-sistemari jarraiki, 44 erakunde ebaluatu dira: 2009an, 25, eta 2010ean, 19. Eta horiek guztiek eskuratu dute Bikain ziurtagiria; 19k goi-mailako urrezko Ziurtagiria lortu dute, 14k tartekoa den zilarrezkoa eta gainontzeko 11k oinarritzkoa. Lurralde-banaketari dagokionez, berriz, enpresa horietatik 23 Bizkaikoak dira, 15 Gipuzkoakoak eta 6 Arabakoak.

Erakunde horiek talde ebaluatzaile batek berariaz egindako ebaluazio-prozesu bat izan dute. Halaber, ebaluazio-txosten bana jaso dute beren indarguneak, zer-hobetuak, gomendioak eta puntuazioa azaltzen dituenak. Ziurtagiria jaso duten 44 entitateei aurrez Ziurtagiria zeukaten 30 entitateak batuz gero, guztira uneotan 74 erakundeek daukate Bikain ziurtagiria. Entitate horiek, gainera, era askotakoak dira: hedabideak, makina-erreminta arlokoak, administrazio publikoak, banaketa-enpresak, fundazioak eta elkarrean, osasun-arlokoak, finantza-erakundeak, eraikuntza arlokoak, aholkularitza-enpresak eta abar ●

BIKAIN ziurtagiria eskuratu duten entitateak

2009. urtean:

- **Oinarrizkoa:** Asociación "Gaztaro" Elkarte (Bizkaia); Garbaldi, S.A.L. (Bizkaia); Ipar Kutxa Rural (Egoitza nagusia) (Bizkaia); ITP, S.A. (Bizkaia); Mirugain, S.L. (Bizkaia); Ona Pres, S. Coop. (Bizkaia).
- **Zilarra:** Accessibility Consulting (ADAPTA) (Gipuzkoa); Agiri Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuak Koop. (Gipuzkoa); Batz, S. Koop. (Bizkaia); Doble Sentido (invesco 2000) (Bizkaia); Gestión del Conocimiento Itzarri, S.L.L. (Gasteizko egoitza) (Araba); Fundación Kalitatea Fundazioa (Bizkaia); San Viator Ikastetxea (Araba); Suspergintza Elkarte (Bizkaia).
- **Urrea:** Andoaingo Larramendi Ikastola, Koop. E. (Gipuzkoa); Aurten Bai Fundazioa (Zornotzako Barnetegia) (Bizkaia); Azpeitiko Udala (Gipuzkoa); EIKA, Koop. E. (Bizkaia); ETEO S. Coop. (Gipuzkoa); Euskaraz Koop. (AEK) (Bulego zentrala) (Bizkaia); Hirukide Jesuitinak (Gipuzkoa); HUHEZI, Koop. E. (Gipuzkoa); Izenaduba Basoa (Bizkaia); R.M. Azkue Ikastola (Bizkaia); Ulibarri Euskaltegia, Koop. E. (Bizkaia).

2010. urtean:

- **Oinarrizkoa:** Arabako Artium Fundazioa (Araba); Asociación Reinserción Social Sartu-Álava (Araba); BILBO eskualdea (Osakidetza) (Bizkaia); Colegio Virgen Niña de Amurrio (Araba); Eusko Ikaskuntzaren ASMOZ Fundazioa (Gipuzkoa).
- **Zilarra:** Bermeoko Ospitalea (Osakidetza) (Bizkaia); Bilbao Bizkaia Kutxa (Egoitza nagusia) (Bizkaia); Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusia (Gipuzkoako Foru Aldundia); Ibar Ezkerra Ikastola Politeknikoa (Bizkaia); IVAP (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) (Araba); ST3-Asociación para la Promoción y Fortalecimiento del Tercer Sector (Bizkaia).
- **Urrea:** Bihotz Gaztea Ikastola (Bizkaia); Eleka Ingeniaritza Linguistikoa S.L. (Gipuzkoa); Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa; Gipuzkoako Herri Kirolak Federazioa; MARAMARA Taldearen Hizkuntza Zerbitzuak SL (Gipuzkoa); Ogasun eta Finantza Departamendua-Erakundeekiko Konpromisoen Zerbitzua (Gipuzkoako Foru Aldundia); T. Aranzadi Ikastola (Gipuzkoa); Txinta Kooperatiba Elkarte (Gabriel Aresti Euskaltegia) (Bizkaia).

Erakunde eta enpresen iritzia



2010eko edizioan BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria jaso duten hiru entitateen iritzia bildu ditugu jarraian. Arabako ARTIUM Fundazioak, Bilbao Bizkaia Kutxak eta Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresak Ziurtagiriak euren erakunde eta enpresei egindako ekarpena azaldu digute.



Sorreratik bertatik, euskarak dagoen tokia izatea izan da ARTIUMen helburua, kontuan hartuta arte garai-kideko *euskal* zentro-museoa dela. Bikain ziurtagiriak, batetik, orain arte egindako lana babestu eta ziurtatu duela adierazi nahi du, eta, bestetik, bultzada ematen dio ARTIUMi, zentro-museoaren egunerokoan gure hizkuntza normalizatzen jarraitzeko.



Bilbao Bizkaia Kutxak Zilarrezko Bikain ziurtagiria eskuratzea azken bi hamarkadetan egindako lanaren aitortza publikoa izan da, eta hori beti da pozgarria. Ziurtagiriak orain arte egin duguna baloratzeko balio izan digu, baina ez geuk enpresa barrutik begiratu, baizik eta kanpoko ebaluatzaile batzuen ikuspegitik. Hori oso interesgarria izan da, gure euskararen dimentsioari buruz geneukan estimazioa nahiko zehatza dela erakutsi digulako.

Bestalde, Bikaini esker, etorkizunean ditugun erronkak hobeto diseinatu ahal izango ditugu, orain

arte jorratu diren ildoek gain, epe erdira aurreikusi barik eduki ditugun beste zenbait alderdi ere izango ditugulako kontuan, jaso dugun ebaluazio-txostean oinarrituta.



Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresarentzat Bikain ziurtagiria errekonozimendu moduko bat izan da. Enpresaren sortzearen une beretik argi eta garbi geneukan Eleka euskaraz lan egingo zuen enpresa izango zela. Euskara naturala eta berezkoa da gure enpresa-proiektuan. Beste modu batean ezin zuen izan, gure sortzaileak Elhuyar Fundazioa eta Ixa taldea izan zirela kontuan hartuta. Bikain ziurtagiriaren urrezko maila erdiesteak balio izan digu Elekak euskararekin duen konpromisoa gizartearen aurrean agertzeko.

Bestetik, Ziurtagiriaren prozesuan jabetu gara gure euskararekiko jarrerak eta jokaerak ez dutela egitura espliziturik eta hori arriskua izan daitekeela etorkizunean. Gogoetarako puntua beraz ●

Euskara eta euskal kulturako Irakurleen Programa

**Etxepare Institutua arduratuko da aurrerantzean
Irakurleen Programa kudeatu eta sustatzeaz.**



Joan den irailaren 30ean Etxepare Institutuko zuzendaria den Aizpea Goenagak eta Birmingham-eko Unibertsitateko ordezkariek Xabier Paya bertan irakurle aritzeko Hitzarmena sinatu zuten. Orain dela 6 bat urte Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak martxan jarritako Irakurleen Programaren azken harria izan da, Etxepare Institutuak hartua baitu euskal hizkuntza eta kultura euskararen eremutik kanpoko hainbat unibertsitatetan bultzatzeko helburuaren lekukoa.

Euskal irakurleen programan parte hartu ahal izateko, unibertsitatearen interesak eta Etxepare Institutuaren helburuek bat etorri behar dute. Irakurleen Programa bultzatu eta indarberritu egin nahi da, eta, horretarako, hizkuntza-departamentu indartsuekin elkarlanean aritzea da Etxepare Institutuaren asmoa. Bere lehenetariko zeregina orain arte zeuden hitzarmenekin aurrera egitea izan da, batzuetan dagoeneko martxan zirenak indartuz edo, hainbat kasutan, moldatuz. Gainera, Etxepare Institutuak urrats berriak eman nahi ditu mundu akademikoan.

Irakurleek unibertsitatean euskara irakasten dihardute, ikasle multzo oso aktibo eta biziak sortuz. Baina euskara irakasteaz gain, euskal kulturak ere badu bere lekua, gure literatura, musika, zinea, bertsolaritza edo tradizioak ezagutzeko aukerak eskaintzen baitituzte unibertsitateek, irakurleen eskutik "Euskal Kultura" irakaskai bilakatuz.

Ildo horretatik, hizkuntzaren ereduari jarraituta, kulturaren programa berria sortzeko asmoa du Etxepare Institutuak, helburu orokor batzuen baitan, irakurle guztiak oinarritzeko baliabide material eta didaktikoak izan ditzaitez, eta euskal kulturari buruzko programazioa egitea eta ekintza osagarriak antolatzea errazago egin dakien.

Ez da, dena dela, irakurleen zeregina hor amaitzen, lan akademikoaren osagarri moduan, hainbat ekitaldi antolatzeko aukera izaten baitute: poesia emanaldiak, idazle zein hizkuntzalarien hitzaldiak, kontzertuak, filmak...

Gainera, EHUrekin elkarlanean, irakurleak hautatzeko prozedura ezarriko du Etxepare Institutuak, eta bertan hautagaiak bete behar dituzten baldintzak zehaztuko ditu, betiere unibertsitateen beharrekin bat eginez.

Irakurle Programaren bilakaera

Hasierako urteetan 5 bat unibertsitateekin hasi zen elkarlanean Kultura Saila, eta gaur egun 25 unibertsitate dira programa hau Euskal Herritik kanpo garatzen dutenak. Guztira 13 herrialdetan dago ezarrita: 8, Europakoak (Espainia, Alemania, Finlandia, Polonia, Italia, Txekia, Errusia eta Erresuma Batua) eta gainontzeko 5ak, Ameriketakoak (AEB, Mexiko, Uruguai, Txile eta Argentina).

Etorkizun hurbilari begira, besteak beste, Frantzia, Alemanian eta AEBetan irakurletzak bultzatzeko lanean ari da urratsak ematen Etxepare Institutua. Gainera, Irakurleen Programa ez ezik, euskara, euskal kultura eta euskal artearen katedrak bultzatzeko asmoa ere badago epe labur edo ertaineko helburuen artean, hainbat baitira euskara, euskal kultura eta euskal artean interesa erakutsi duten unibertsitateak.

Hitz bitan, orain arte egindakoa indartzea eta moldatzea ahaztu gabe, arlo honetan bide berriak jorratzea dago Etxepare Institutuaren erronken artean, Bernat Etxepareren leloari jarraituz, gure hizkuntzak eta kulturak munduan leku zabalagoa izatea lortzearren.

Xabier Paya Birmingham-eko Unibertsitateko irakurlea.

Zerk motibatzen ditu gazte ingelesak euskara ikastera?

Ikasleek badakite euskara hizkuntza ezberdina dela, zaharra, eta batik bat hizkuntzalaritzarekiko zaletasunak erakartzen ditu.

Zenbat ikasle dituzu?

Denera 30 bat izango dira. Gehienek Euskal Kultura eta Gizartea irakasgai eman dute izena; ematen du askoz interes handiagoa dagoela, oro har, kultura eta gizartea ezagutzeko, hizkuntza ikasteko baino.

Larry Trask-en funtsa eskuratu du Birmingham-eko Unibertsitateak. Zertan datza funtsa?

Larry Traskek Sussex-eko Unibertsitatean egin zuen lan, 2004an hil arte. Bere liburu guztiak bertako liburutegira eraman zituzten, baina, erabiltzen ez zire-

nez, bere emazteak, Birmingham-eko Unibertsitatean Euskal Irakasletza zegoela jakinik, dohain eman zion bilduma osoa. Bere liburuak eta eskuizkribuak osatzen dute liburutegia, baina, katalogatu gabe dagoenez, ez dugu ezagutzen Larry Trasken funtsa.

Zer ekintza antolatuko dituzue urtean zehar euskara sustatzeko?

Hiru multzo nagusitan banatuko dira: lehenik, jardunaldi akademikoak egongo dira; bigarrenik, jardunaldi ez akademikoak izango dira, euskal ondarea modu informalagoan azaltzeko ekintzetan oinarritua; eta azkenik, GALEUSKA ekintzak antolatuko ditugu, euskara, galegoa eta katalana elkarlanean jarriko dituen ikuskitz, hitzaldi eta abarren multzoa, alegia ●



Inigo Atzkona



Network to Promote Linguistic Diversity-k (NPLD), hau da, Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sareak (Europako sarea), urrian, bi ekimen antolatu zituen Bilbon:

- Urriaren 4an, Terminologia, software-lokalizazioa eta IKTei buruzko **biler**ra izan zuen, 2009ko abenduan Dublinen antolatutako mintegiari jarraipena emanez.
- Urriaren 5ean eta 6an, Toponimiari buruzko **mintegia** (*Place Names Seminar*) egin zuen. Mintegian zazpi hizkuntza-komunitatetako 16 ordezkari hartu zuten parte: Nafarroako Gobernuko hiru, Galesko Gobernuko bi, Irlandako Gobernuko bi, Office de la Langue Bretonne-ko hiru, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzako hiru, Institut d'Estudis Occitans-eko bat eta NPLDko Idazkaritzako bat.

Mintegiaren helburua kideen artean informazioa trukatzeko izan zen, izan ere kontuan izanda denak hizkuntza-komunitate elebidunak direla, toponimia-lana batean eta bestean nola dagoen antolatuta jakitea guztion interesa zen. Mintegian gai hauek jorratu ziren bi multzotan: toponimoen normalizazioa (estandarizazioa) eta ofizializazioa, batetik, eta, bestetik, toponimo normalizatu eta ofizialen inplementazioa, zabalkundea eta eguneratzea.

Azkenik, guztiek azpimarratu zuten, gaur egun, oso garrantzitsua dela gure komunitateetako toponimia zuzena, ofiziala eta normalizatu erabiltzaile estrategikoengana helaraztea, esaterako IKTak erabiltzen dituzten enpresa handietara: Google Maps, Google Earth, Bing Maps, Geonames eta GPS fabrikatzaileetara ●



2010eko **Euskararen Nazioarteko Egunak** Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburu-udalak batu ditu. Aipatutako erakundeek elkarlanean antolatu zituzten euskararen balio unitbertsala aldarrikatzeko jarduerak. Kultura sailburu Blanca Urgell gustura agertu da lortutako adostasunarekin: «Behin eta berriz esan dugu, ahalik eta adostasun sozial eta politikorik handiena daukan hizkuntza-politika garatu nahi dugula».

Hala, hainbat ekitaldi burutu ziren, abenduaren 3an, Euskadiko hiru hiriburu-udetan. Bilbon, euskaraz aritzen diren musika talde amateurrek parte hartzen duten Banden Lehia 2010 egin zen. Donostian, 400 lagun inguru bildu ziren herritarrek elkarrekin euskaraz egin dezaten aukerak sortzea helburu duen Mintzodromoan. Era berean, bertako nahiz kanpoko inprobisatzaileek "Plazetik plazera" saioa eskaini zuten. Azkenik, hainbat euskal musika taldek kontzertu erraldoia eskaini zuten Gasteizen.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen Euskararen Nazioarteko Egunerako adierazpen instituzionala ●



Argazki Press

Donostian egindako Mintzodromoa.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

- Paperezkoa jasotzeko: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es

- Bertsio digitala jasotzeko egin harpidetza www.euskara.euskadi.net/berripapera helbidean.

